



**NAGORE  
IRAZUSTABARRENA  
URANGA**

# Emakume ehiztariak ez ziren salbuespena

**A**ndeetako goi-ordokia, duela 9.000 urte. Emakume gazte bat ehizarako arma eta tresnekin ehortzi zuten, eta, ondorioz, hil artean ehiztari lanetan jardun zuela ondorioztatu dute adituek. Azken urteotan antzeko hainbat kasu agertu dira, baina salbuespen modura eman izan dute horien berri. Seattle Pacific unibertsitateko Cara Wall-Scheffler biologoa buru duen lantaldeak, ordea, emakume ehiztariei buruzko ikerlan orokorra egin berri du eta *Plos One* aldizkarian argitaratutako ondorioa garbia da: Historiaurreko gizarte ehiztari-biltzaileetan emakumeek nahiz gizonezkoek egiten zuten ehizan.

Horretarako mundu osoko 63 komunitate aztertu dituzte eta horietatik 50etan aurkitu dituzte ehiza denen lana zela dioten frogak: Punan (Malaysia), Wopkaimin (Ginea Berria), Hiwi (Venezuela), Matses (Amazonia), Tsimane (Bolivia)... Beraz, gizarte ehiztari-biltzaileen %80tan gutxienez emakume ehiztariak zeudela ondorioztatu dute; eta gainerako %20etan ez dute ez aldeko ez kontrako frogarik aurkitu.

Horretarako ez dituzte aztarnategi edo arrasto berriak ikertu; aurrez egingdako ikerlanetan oinarritu dira, baina interpretazioa da aldatu dena. Luzaroen Historiaurreko komunitate horietan genero rola oso banatuta zeudela uste izan da, egungo gizartearen ikuspegi



MATHEW VERDOLIVO

Duela 9.000 urte Andeetako goi-ordokian bizi zen emakume ehiztari baten gaur egungo irudikapena, haren hilobian aurkitutako lanabesetan oinarrituta.

subjektiboaren eraginez: gizonezkoek haien indarra erabiltzen zuten ehizarako eta emakumeak, aldiz, bilketan eta haurren zaintzan aritzen ziren.

Ikerlanak uste hori hautsi du, baina horrek ez du esan nahi ehizan generoen artean alderik, ñabardurarik ez zegoenik. Wall-Scheffleren hitzetan, "arrasto arkeologikoen adierazten dutenez, emakumeek nagusiki tamaina handiko harrapakinaren ehizan jarduten zuten, belaunaldi berriei ehiza praktikak irakasten zizkieten eta, maiz, gizonezkoek

baino arma anitzagoak eta estrategia garatuagoak erabiltzen zituzten".

Ehizarena adibide bat baino ez dela diote ikerlariak, eta orain arte Historiaurreko genero rola egungo ikuspegitik baldintzatu eta oker interpretatu direnez, beste arlo batzuk ere ikertzen hasi dira: emakumezkoen mugikortasuna, edozein jardura egin bitartean haur txikiak bizkarrean eramateko gaitasuna... Eta orain arte bildutako datuak beraztertzeke eskatzen diete komunitate zientifikoko kideei. ●

## Eternitatearen usaina



NINA ALDINTHUNE

Antzinako Egipton, momifikazio prozesuan, zenbait organo ontzi kanopotan sartzen zituzten, eta hainbat substantziaz osatutako baltsamoak erabiltzen zituzten horiek kontserbatzeko. Berriki Max Planck Institutuko ikerlariak Amenhotep II.a faraioren inude Senetnay-ren ontzi kanopoetako arrastoak aztertu dituzte eta substantzia zerrenda luzea atera dute: erleen argizaria, landare olioak, animalia

gantza, betuna, erretxina, kanela, ilarrak, azido benzoikoa... Momifikazio prozesuaren sofistikazio mailaren eta egiptoarren merkataritza sare zabalaren froga da zerrenda hori. Gainera, Carole Galvez lurringilearen laguntzaz, baltsamo horren lurrina berregin dute; "eternitatearen usaina" deitu diote eta, oraingoz, Danimarkako Moesgaard museoko bisitariek usaintzeko aukera dute. ●